



## **Idazkaritza-Kontuhartzaitza**

2025/07/24an EGINDAKO OHIKO OSOKO  
BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE  
LA CORPORACIÓN. Día 24/07/2025.

### BERTARATUAK- ASISTENTES

#### Alkate-Udalburua

Edorta Zubizarreta Alegria

#### Zinegotziak

Alaitz Orueta Arrese  
Edorta Barandiaran García  
Xabier Uriarte Iñurrategi  
Iratzi Iglesias Pozo  
Mikel Luengo Gabarain  
Maite Uribe Beristain  
Antonio Regaño Sajeras  
Josu Ezkurdia Santamaria

#### Idazkaria

### **EDURNE ITURBE LASKURAIN**

Eskoriatzan, 2025eko uztailaren 14an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Edorta Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra ohiko bilkuran gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Dorleta Sologaistoa Aguiriano eta Puri Regidor Varela.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 24 de julio de 2025, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Edorta Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten Dorleta Sologaistoa Aguiriano y Puri Regidor Varela.

<https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAAF4HJP.usCh>

**2025/07/124  
Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Ordinaria**



## **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2025/06/26 eta 2025/07/15.

## **2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.**

2025eko uztailaren 15era arte Alkateak hartutako erabakien berri eman da.

Berariaz eman da kredituak aldatzeko 10/2025 espedientea onartzeko Alkate erabakiaren berri.

## **3.- ESNARGI KOOP.-I LUIS EZEIZA HERRI ESKOLAKO TEILATUAREN ZATI BATEN ERABILERA PRIBATIBORAKO ADMINISTRAZIO-EMAKIDA ESLEITZEA.**

Kontuan hartu beharrekoak:

- Udal hau Gaztañadui kaleko 25. zenbakian LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA ikastetxea dagoen eraikinaren jabea da. Eraikin hori udal jabari publikoko ondasuna da, eta toki entitate honen Ondasunen Inbentario Orokorean jabari publikoko ondasuntzat jasota dago.
- Udalbatzaren 2025/05/22ko Osoko Bilkuraren erabakiz, Eskoriatzako Udalak ESNARGI KOOP.S energia-komunitatean bazkide laguntzaile gisa PARTE HARTZEN DU.
- ESNARGI KOOP.S.k, energia sortzeko, beharrezko du autokonsumo kolektibo bidez ustiatuko diren eguzki-plaka fotovoltaikoak instalatzea, eta, horretarako, beharrezko da plaka horiek udalerriko lekuren batean kokatzea.
- ESNARGI KOOP.S.k eguzki-plaka horiek LUIS EZEIZA HERRI ESKOLAREN teilituaren zati librean instalatzeko interesa du.
- Sektore Elektrikoari buruz abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 6. artikuluan xedatutakoa.
- Euskadiko Toki Erakundeei buruz apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 9.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, udal-autonomiak barne hartzen du, betiere, interes publikoak antolatzea udalaren berezko esparruan, bere gobernu-organoak eta administrazioa antolatzea eta kudeatzea, bere lurraldia antolatzea, tokiko zerbitzuak arautzea eta ematea, ekimen ekonomikoa, bere zerbitzupeko langileen inguruko politika eta kudeaketa, ondarea eta dirubilketa, eta orobat bere ogasunen baliabideak administratzea eta erabiltzea.
- Euskadiko Toki Erakundeei buruz apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.28 artikuluan xedatutakoa.

Egoera horren aurrean, LUIS EZEIZA HERRI ESKOLAREN eraikinaren teilitua egokia denez helburu hori betetzeko, beharrezko da ondasun horren erabilera pribatiboaren jabari publikoaren emakida egitea, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 78. artikuluaren eta hurrengoan arabera, bai eta Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen (APEL) 93.1 artikuluaren eta hurrengoan arabera ere, arau horren 137.4.c) artikuluarekin lotuta.

Zerbitzu teknikoen 2025eko uztailaren 8ko txostena aztertu da, bai eta emakida esleitzeko araubidea arautzeko aurkeztu den hitzarmen-proposamena ere.



Kontuan hartu da ere Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren xedatutakoa, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 89. artikuluari dagokionez.

Lurralde eta Garapen Ekonomiko Jasangarriaren batzorde informatzaileak, 2025eko uztailaren 14an egindako bilkuran, aldeko irizpena eman dio erabaki-proposamenari.

Eztabaidatu eta bozkatu ondoren, Udalbatzarrak, bertaratutako zinegotzi guztiekin alde bozkatuta, eta ondorioz, gehiengo osoaren quorumarekin, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.**- Eguzki-instalazio fotovoltaiko bat jartzeko LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA ikastetxearen eraikineko (Gaztañadui 25) teilatuaren 188 m<sup>2</sup> erabiltzeko jabari publikoko emakida ESNARGI KOOP. Energia Komunitateari (IFZ: F75331165) esleitzea, ondoren esango diren estipulazioekin. Emakida 2050eko abenduaren 31ra arteko eperako esleitzen da, zuzeneko esleipen-prozeduraren bidez, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 137.4 artikuluan aurreikusitako arrazoia gertatzen baita, kanonik eskatu gabe.

**BIGARRENA.**- Honako estipulazio hauetan ezartzen diren baldintzen arabera esleitzen da emakida, bi alderdiek izenpetu beharreko hitzarmen batean jaso beharko direnak.

#### ESTIPULAZIOAK

##### LEHENENGOA: Xedea

Hitzarmen honen xedea da “ESNARGI Koop. S.” kooperatibari, haren estatutuetan jasotzen diren helburuak garatzeko, Eskoriatzako Udalaren titularitateko jabari eta zerbitzu publikoko ondasuna den Luis Ezeiza Herri Eskolaren teilatuaren zati bat, 188 metro koadroko (1. eranskin gisa jasotzen den planoan adierazten den espazioa, zehazki), modu pribatiboan eta doan erabiltzeko lagapena egitea, eta baimena ematea inbertsorea teilatuan jartzeko -beste instalazioko inbertsorearen ondoan- eta koadro elektriko orokorra dagoen tokian kontadorea ipintzeko. Instalazio honek 244/2019 Errege Dekretuan eta ondorengo aldaketetan autokontsumo partekatuari buruz ezartzen dena beteko du.

BIGARRENA: ESNARGI Koop. S. kooperatibaren betebeharrok:

Ondorengo betebeharrok izango ditu ESNARGI kooperatibak:

a.- Eguzki-instalazio fotovoltaiko bat jartzea, 244/2019 Errege Dekretuak eta ondorengo aldaketek autokontsumo partekatuari buruz xedatzen dutena beteko duena.

b.- Eguzki-instalazio fotovoltaikoa jarri baino lehen, instalazio-proiektua aurkeztu beharko du ESNARGI kooperatibak, bai eta Udalak eskatzen dizkion azterketa eta proba guztiak ere. Eta Udalak oniritzia eman beharko dio proiektuari.

c.- Hitzarmen hau sinatzen denetik 18 hilabeteko gehieneko epean, Eskoriatzako Luis Ezeiza Herri Eskolako teilatuan eguzki-instalazio fotovoltaikoa instalatzeko eta martxan jartzeko jarduketa guztien eskaerak egitea.



c.1.- Eskoriatzaako Udalari dagokion hirigintza-lizentzia eskatzea aurretiazko komunikazio bidez, eskabidearekin batera autokontsumoaren tramitazio erraztekoa den eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea aldatzen duen ekainaren 1eko 5/2023 Legeak eskatzen duen dokumentazioa aurkeztuta.

c.2.- Sarbide- eta konexio-punturako eta dagozkion sarbide- eta konexio-baimenetarako eskabideak aurkeztea, 1699/2011 Errege Dekretuan aurreikusten denaren arabera, eta 24/2013 Legean eta aplikagarria den elektrizitatearen arloko gainerako araudian aurreikusitako instalazioen baimenak eskatzea (eraikuntzarako eta instalaziorako aurretiazko baimen administratiboa)

c.3.- Sarera sartzeko kontratu teknikorako eskaera bideratzea enpresa banatzaileari.

c.4.- Instalazioa dauden energia-autokontsumoko erregistroetan inskriba dadin eskatzea

c.5.- Halaber, aplikagarria den araudiak emakidaren xede den jarduera martxan jartzeari eta ustiatzeari dagokionez ezartzen dituen lizentziak eta baimenak eskuratzeko eskabideak egitea.

d.- Lagatzen den espazioa baimendutako jarduerarako soilik erabiltzea.

e.- Udalari uneoro ematea parkearen instalaziotik igarotzeko aukera, lagatzen ez den teilatuaren zatira iritsi ahal izateko.

f.- Emakida honek indarrean dirauen bitartean, Udalari edo hirugarrenei eragindako kalte- galeren gaineko erantzukizuna bere gain hartzea. Horretarako, erantzukizun zibileko aseguru bat sinatzea eta indarrean mantentzea, eta aseguru-konpainiak emandako ziurtagiria Udalari bidaltzea, aseguratutako zenbatekoak, estalduren xehetasunak eta urteko kuota ordainduta dagoela jasoko dituena. Agiri horiek lehenengo poliza egiten denetik 15 eguneko epean aurkeztu beharko dira eta, ondoren, Udalak eskatzen dituenean.

g.- Jabari publikoa babesteko dituen betebeharrok bete ditzan bermatzeko, Udalak agintzen dituen ikuskapen-bisitak bamentzea, eta bisita horien ondoriozko aginduak obeditzea.,

h.- Parkea instalazeagatik eta jarduera martxan jartzearik eta ustiatzeagatik dagozkion zergak, tasak eta gainerako kargak ordaintzea.

i.- Lagapena kooperatibak berak baliatzea, eta hirugarrenei lagapenik edo eskualdaketarik ez egitea, Eskoriatzaako Udalaren berariazko baimena eduki ezean.

j.- Emakida bidez jasotako espazioa egoera onean mantentzea emakidak irauten duen epean. Hala ere, Udalaren ardura izango da instalazioaren ondoriozkoak ez diren eta instalaziorik jarri ez balitz ere egin beharrekoak izango liratekeen teilatuko kontserbazio- eta konponketa-lanak egitea, baina ez dio inolako kalte-ordinak eman beharko ESNARGI kooperatibari, energia- sorkuntza aldi baterako eten behar izanagatik.



k.- Bere kontura egikaritzea lagapen honen xede den teilituan eguzki-instalazio fotovoltaikoa martxan jartzeko beharrezkoak diren obra eta instalazio finko edo mugikor guztiak.

Emakidadunak berak edo hark horretarako kontratatutako hirugarren batek egikarituko ditu eta eskumena duen teknikariak proiektuan jaso eta zuzenduko ditu obrak eta instalazioak bere erantzukizunpean, Udalak ez du larik inolako erantzukizunik izango instalazioa egikaritzeko lanen eta ondorengo funtzionamenduaren kontrolari eta zaintzari dagokionez, indarrean dagoen legeriak titularitate pribatuko era guztietako obra, instalazio eta ingurumen-jardueren gaineko kontrolari dagokionez ematen dizkion ahalmen generikoen kalterik gabe.

Instalazio fotovoltaikoa jartzeko lanen ondorioz obra seinale, ohar edo bestela komunikazio orokorrik jarri behar izanez gero, irizpide honi jarraituko zaio:

- Euskarazko mezua gaztelaniaz ere ulergarria bada (mezu ezaguna delako edo antzeko grafia duelako), euskara hutsean utziko da.
- Piktograma erabiltzeko aukera dagoenean ere, euskara hutsean utziko da, piktograma ondoan duelarik.
- Bestela, ele bietan egingo da, euskarari lehentasuna emanaz.

l.- Kooperatibaren Estatutuetan jasotzen diren helburuak betetzea eta energia-komunitatearen hedapena bultzatzea.

m.- Bere gain hartza emakida-aldian zehar instalazio fotovoltaikoarekin lotuta sortzen diren gastu guztiak.

n.- Edozein esku-hartze egiteko eraikin barrura sartu beharrik izanez gero, Eskoriatzako Udalari aldez aurretik jakinaraztea. Halaber, Komunitatea derrigortuta dago Udalari lagatako azalerari edo egoera txarrean dagoen eraikinari eragiten dien eta kaltegarritzat jotzen den edozein berritasunen berri lehenbailehen ematera.

o.- Urtero, Batzar Nagusira bidalitako informazioa helaraztea Udalari, kooperatibaren funtsezko jarduerari eta helburuen betetze-mailari buruzko informazioarekin, ESNARGIk dituen baziode kopurua egiaztatuko duen dokumentazioa, ekoizpen-, kontsumo- eta soberakin-datuak, eta urtean zehar egindako konponketa- eta mantenu-lanak barne.

p.- Emakida azkentzen denean, eta horretarako adierazten den epearen barruan, haren xede izan den ondasuna libre uztea, eta inbertsorea eta kontadorea ere kenduta, Udalaren eskura, edozein dela ere azkentzearen arrazoia, baldin eta alde bien artean ez bada komenigarritzat jotzen instalazio fotovoltaikoarekin aurrera jarraitza. Kasu horretan, instalazioaren balorazioa egingo du Udalak.

HIRUGARRENA. Eskoriatzako Udalaren betebeharra.

- a. Hitzarmen hau sinatzen denean, emakida-araubidean lagatzea ESNARGI kooperatibari Eskoriatzako Udalaren titularitateko Luis Ezeiza Herri Eskolaren teilituaren zati bat, 188 metro koadrokoa (1. Eranskin gisa jasotzen den planoan adierazten den espazioa, zehazki),



jabari eta zerbitzu publikoko ondasuna dena, hark doan erabil dezan, eguzki-instalazio fotovoltaikoa jartzeko. Halaber, baimena ematea inbertsorea teilituan jartzeko -beste instalazioko inbertsorearen ondoan- eta koadro elektriko orokorra dagoen tokian kontadorea ipintzeko.

- b. Emakidaren xede den teilitu zatia konpontzea eta bizi-lerro bat eta hara iristeko eskailera bat jartzea, beharrezkoa balitz; hori guztia, hitzarmena sinatzen denetik hiru hilabeteko epean, "ESNARGI Koop. S." kooperatibak aipatutako lanak hasi baino lehen eta, betiere, BIGARREN estipulazioan adierazitako baldintzetan. Behin Udalak lanak egiten dituenean, emakidaren xede den teilitu zatia hartu izanaren akta jasoko da.

LAUGARRENA. ESNARGI kooperatibaren eskubideak:

Hauek dira "ESNARGI Koop. S." emakidadunaren eskubideak:

- Lagatako teilitu zatia modu baketsuan erabiltzea, emakidak indarrean diraueen bitartean.
- Emakida ustiatzea, hitzarmen honen eta aplikagarria den araudiaren arabera.

BOSGARRENA: Eskoriatzako Udalaren ahalmenak:

Eskoriatzako Udalak ahalmena du:

- Lagapenak indarrean diraueen bitartean, "ESNARGI Koop. S." kooperatibari haren jarduerari, instalazioari eta funtzionamenduari buruzko datu zehatzak eskatzeko, bigarren estipulazioaren o. paragrafoan aipatzen den bezala.
- Eragindako jabari publikoa babesteko neurriak hartzeko, baimendu gabeko jarduketak berehala etetea eta erabilitako elementuak kentzea barne, emakidadunaren kontura, eta hark izan litzakeen erantzukizunaren kalterik gabe.
- Kontserbazio-egoera edozein unetan ikuskatzeko.

SEIGARRENA: Emakidaren iraupena.

2050eko abenduaren 31n amaituko da emakida-epena.

Hala ere, emakida luzatu egin ahal izango da, baldin eta ESNARGI kooperatibak, emakida-epena amaitu baino lehen, haren iraupena luzatzea eskatzen badu eta Udalak, eskudun organoaren ebazpen bidez, eskaera hori onesten badu; nolanahi ere, emakidaren guztizko iraupena ezin izango da izan legez ezarritako gehieneko epa baino luzeagoa.

"ESNARGI Koop. S." kooperatibak ez dio inolako kanonik ordaindu beharko Eskoriatzako Udalari, aintzat hartuta kooperatibak bultzatzen duen helburua.

ZAZPIGARRENA: Instalazioaren jabetza



“ESNARGI Koop. S.” izango da hitzarmen honetan hitzartutakoaren arabera egindako instalazioaren jabea, eta jabetza horren ondoriozko betebeharrak betetzeko eta horien aurrean erantzuteko obligazioa izango du.

Eskoriatzako Udalak ez du erantzukizunik izango teilatuaren erabileraren, instalazioa jartzearen eta instalazioaren jardueraren ondorioz gerta litzkeen kalteen aurrean, ezta lan-arloko, gizarte-segurantzako eta laneko higiene eta segurtasuneko edo beste edozein arlotako araudia betetzeari dagokionez ere.

#### ZORTZIGARRENA: Instalazioaren ustiakuntza.

“ESNARGI Koop. S.” arduratuko da instalazioa ustiatzeaz, horrek dakartzan obligazio guztiak betez; besteak beste, eta horietako batzuk aipatzearen:

- Instalazioen mantentze-lana, hau da, eguzki-instalazioan eta ekipoetan egindako edo egin beharreko eragiketa-multzoa, haien erabilera-baldintza onenetan mantentzeko eta erabilera-etenak, haien eginkizunean gorabeherak edo haien funtzionamendu-parametroetan edo emaitzetan nahasteak gerta daitezen saihesteko, edo haien errendimendua fabrikatzaileen gomendioen araberako diseinu-mailaren antzerako mailtan eta indarrean dauden Erregelamendu Ofizialen zehaztapenen arabera manten dadin.
- Beharrezkoak izan litzkeen aseguruak kontratatzea eta, urtero, aseguru-etxearen ziurtagiri bat aurkezteko konpromisoa hartzea, zeinetan jasota geratuko diren aseguratutako zenbatekoak, estalduren xehetasunak eta urteko zenbatekoaren ordainketa.
- Bere kontura egitea beharrezko egokitzapen-lanak; lan horiek inola ere ezingo dute eraginik izan instalazioa jarriko den eraikinaren ohiko funtzionamenduan. Hala badagokio, instalazioa kentzeko lanak ere egingo dira, instalazioaren eremua jatorrizko egoeran utziz.
- Azpiegituran, instalazioan eta ekipoetan beharrezkoak diren ekintzak gauzatzea, beharrezko birjarpen, eraberritze edo erreforma partzialak garaiz aurreikustera eta programatzera bideratutakoak, eraikinaren ohiko jarduna ez kaltetzen saiatuz.
- Egin beharreko gestioak egitea Administrazioaren (Energia Elektrikoa Araubide Berezian Ekoizteko Instalazioen Erregistroa) eta enpresa banatzailearen aurrean (salmenta-kontratu, halakorik balego) konexio-eskaera, baldintza onuragarriak egiaztatzea, onespenaren zehaztapenak, etab., hori guztia instalazioa sarera lotzeko, bai eta obra egikaritzeko zuzendaritza teknikoa ere.

#### BEDERATZIGARRENA: Emakida erreskatatu edo berreskuratzea

Eskoriatzako Udalak administrazio-emakida berreskuratzeko eskubidea izango du, hura iraungi baino lehen:

- Hitzarmen honetan jasotzen diren klausulak betetzen ez badira.
- Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren 1/2024 Legearen 26. artikuluaren h)



puntuau aurreikusten diren inguruabarrak emango balira.

- Bigarren estipulazioko 1 puntuau jasotzen den betebeharra ezin izan bada bete, bi aldeek aztertu eta adostu ondoren.
- Interes publikoko halabeharrezko inguruabarrek hala justifikatzen badute.

Berreskurapena emakidadunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik izan ezean, kalte-galerengatiko kalte-ordinaria emango zaio, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Udalak erabakitzetan badu emakida berreskuratzea, ESNARGI kooperatibak libre, Udalaren eskura, utzi beharko du emakidaren xede den ondasuna, horretarako adierazten den epearen barruan (hau da, bigarren estipulazioan aipatzen den harrera-aktan jasotzen den moduan), baldin eta alde bien adostasunez, ez bada komenigarritzat jotzen instalazio fotovoltaikoarekin aurrera jarraitzea. Kasu horretan, instalazioaren balorazioa egingo du Udalak.

Hala egin ezean, emakidadunak automatikoki galduko du klausula honetan kalteak kobratzeko eta kalte-ordinak jasotzea ematen zaion eskubidea.

#### HAMARGARRENA: Emakida azkentzea.

Aldeetakoren batek hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, beste aldeak hitzarmena zorrotz bete dezan eskatzea edo hitzarmena suntsitzea eskatzea ahalmena izango du.

Ondoren aipatzen direnak izango dira emakida azkentzeko arrazoia, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 100. artikuluan ezartzen direnez gain:

- 1.- Emakida-hitzarmenean jasotakoa ez betetzea.
- 2.- Udal Zerbitzu Teknikoen ikuskapen-lanen aurka azaltzea.
- 3.- Espediente honi dagokion jarduerara bideratutako instalazioak ustiatzea beharrezko lanak egin ahal izateko dagozkion udal lizenziak edo baimenak ez eskatzea.
- 4.- Udalaren ondasuna plaka fotovoltaikoen instalazio ez diren beste jarduketa batzuetarako erabiltzea, edo emakida egiten den xederako ez erabiltzea.

Esleipendunak derrigorrez bete behar du administrazio-emakidaren xedea, horretarako finkatutako guztizko epearen barruan. Instalazioaren egikaritzean atzerapenik gertatuz gero, eta hori emakidadunari egotz dakiokeen arrazoiren baten ondorio baldin bada, azkendu egin ahal izango da hitzarmena, eta emakidadunak ez du izango kalte-ordinak jasotzea eskubiderik, Udalak luzapena onesten ez badu, behintzat.

Udalak erabakitzetan badu hitzarmena azkentzea, edozein dela ere horretarako arrazoia, ESNARGI kooperatibak libre, Udalaren eskura, utzi beharko du emakidaren xede den ondasuna, horretarako adierazten den epearen barruan (hau da, bigarren estipulazioan aipatzen den harrera-aktan jasotzen



den moduan), baldin eta alde bien adostasunez, ez bada komenigarritzat jotzen instalazio fotovoltaikoarekin aurrera jarraitzea. Kasu horretan, instalazioaren balorazioa egingo du Udalak.

Emakida iraungi ondoren instalazio fotovoltaikoa mantentzea erabakiko balitz, azpiegituraren titularitatea Udalarena izatera pasatuko litzateke, azpiegitura berehala eta bere osotasunean bere eskura izanez.

Emakida azkendutzat jotseko, nahikoa izango da hori egiaztatzen duen udal txosten teknikoa eta Udalbatzarraren dagokion erabakia.

**HAMAIKAGARRENA:** Hitzarmenaren interpretazioa.

Hitzarmen honek edo hitzarmenaren betearazpenak plantea litzaketen interpretazio-arazoak adostasunez ebatziko dira, ahal izanez gero, eta, halakorik lortu ezean, Eskoriatzaako Udalak berak ebatziko ditu.

**HAMABIGARRENA:** Araubide juridikoa.

Hitzarmen honetan ezarritakoak arautuko du emakida honi dagokion jabari publikoaren erabilera, eta hemen aurreikusten ez den guztirako, honako hauek aplikatuko dira: 7/1985 Legea, apirilaren 2ko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18ko, toki-araubideko gaietan indarrean dauden Xedapenen Testu Bategina onesten duena; 2/2016 Legea, apirilaren 7ko, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; eta Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretu bidez onetsi zena. Funtsean, edo, hala badagokio, ordezko gisa, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea ere aplikatuko da.

#### **4.- DIRULAGUNTZEN 2024-2027 PLAN ESTRATEGIKOAREN 2/2025 ALDAKETA.**

Udalbatzarrak, 2023ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Dirulaguntzen 2024-2027 Plan Estrategikoa onartu zuen.

Plana onartuta, udaleko hainbat arlok komenigarria ikusi dute planaren 2025-eranskinean jasotako aurreikuspenetako batzuk aldatzea LERRO ESTRATEGIKOETAKO dirulaguntza programa batzuen eremu subjektiboa edota objektiboa zabaltzeko.

Proposamenak aztertuta, eta Kultura, Euskara, Gazteria eta Hezkuntza batzorde informatzaileak egindako diktamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Ondorengo programarako finantzazioa handitzea ondoren ere esango den kopuruan:

A) **PROGRAMAREN DESKRIPZIOA:** *euskara ikasteko dirulaguntzak.*



*HARTZAILEAK: euskara ikasteko euskaltegian edo barnetegian matrikulatuta egon eta Eskoriatzan erroldatutako pertsonak. 1.700 eurotan HANDITZEA.*

#### **5.- UDAL LANGILEEN ORDAINSARIEI 2024an APLIKATU BEHARREKO IGOERA OSAGARRIA ONARTZEA.**

Ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuak, Ukrainako eta Ekiade Hurbileko gatazkek eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko zenbait neurri luzatzen dituenak eta zerga, energia eta gizarte arloko premiazko neurriak hartzen dituenak, honako hau ezartzen du:

*2. 2. Era berean, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekin ehoneko 0,5eko ordainsari-igoera gehigarria eta finkagarria aplikatuko da, baldin eta 2022., 2023. eta 2024. urteetako KPlaren aldakuntzaren baturak 2022., 2023. eta 2024. urteetako ordainsari-igoera finko metatua gainditzen badu.*

*Ondorio horietarako, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) 2024ko KPlaren datuak argitaratu ondoren, gehikuntza horren aplikazioa onartuko da Ministroen Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da.*

Estatistikako Institutu Nazionalak, 2025eko urtarrilaren 15ean, ziurtatu du 2022, 2023 eta 2024 urteetako KPI-aren aldakuntzaren batura % 12koa dela.

Bestalde, 2022, 2023 eta 2024ko ordainsari-igoera finko metatua % 8koa da.

Era berean, eta Legeak berak bere artikuluetan jasotzen duen bezala, Ministro Kontseiluak, 2025eko uztailaren 1ean egindako bileran, erabaki zuen sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsarien % 0,5eko ordainsari-igoera, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekin, gehigarri eta finkagarria aplikatzea. Erabaki hori Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (BOE, 158. zk., 2025eko uztailaren 2koa).

Aurrez esandakoa kontuan hartuta, Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuaren 6.2 artikuluan aurreikusitako Sektore publikoko langileen ordainsarien % 0,5eko gehikuntza osagarria onartzea. 4/2024 Errege Lege Dekretu horrek Ukrainako eta Ekiade Hurbileko gatazken ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko zenbait neurri luzatzen ditu eta zerga, energia eta gizarte arloko premiazko neurriak hartzen ditu.

Zinegotzien ordainsari mailak ehoneko berean igotzeko baimena ematea.

Igoera hori 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei aplikatuko zaie, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

**Bigarrena.-** Igoera horiek abuztuko nominan ordaintzea.

#### **6.- DEBAGOIENA MANKOMUNITATEAREN ESTATUTUEN PROIEKTU BERRIA ONARTZEA.**



Debagoiena Mankomunitateko Estatutuen proiektu berria aztertu da.

Hori onartzeko, indarrean dagoen araudian aurreikusitako prozedura jarraitu da.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2-g) artikuluaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalaz gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauaren 11. artikuluaren arabera, proiektu hori behin betiko onartzeko, zinegotzien legezko kopuruaren gehiengo osoak aldeko erabakia hartu behar du osoko bilkuran.

Erabakia hartu aurretik, batzorde informatzaile honek proposamenaren gaineko irizpena eman behar du, besteak beste, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.1-c) artikuluak hala eskatzen duelako. .

Eztabaidatu eta bozkatu ondoren, bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, eta beraz, gehiengo osoaren quorumarekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Debagoineneko Mankomunitatearen estatutuen proiektu berria onartzea, Mankomunitatearen Gobernu Batzordeak 2025eko ekainaren 19ko bilkuran onartutako hitz berberetan.

**BIGARRENA.-** Erabakia Debagoineneko Mankomunitateari jakinaraztea.

#### **7.- KREDITUAK ALDATZEKO 11/2025. ESPEDIENTEA ONARTZEA.**

Idazkari-kontuhartzailak egindako txostenetan irakurri da, non adierazten bai aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiai egokitzentzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikulan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Idazkaritza-kontuhartzailak egindako txostenetan aztertuta, bototara jarri da Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzailek egindako proposamena.

Udalbatzarrak, bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 11/2025. expedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0100.227.151.00.07 2025	AZTERKETA, LAN TEKNIKOAK: HIRIGINTZA	20.000,00	4.000,00	24.000,00



1 0200.227.311.00.24 2025	KONTRATUA:ANIMALIEN BILKETA	7.000,00	2.000,00	9.000,00
1 0100.211.933.00.01 2025	MANTENIMENDUA:ETXEAK-LOKALAK	8.000,00	5.000,00	13.000,00
1 0100.601.454.00.03 2025	INBERTSIOAK:ELIZATEAK	10.529,30	19.000,00	29.529,30
1 0400.622.326.10.01 2025	MUSIKA ESKOLA	0,00	17.000,00	17.000,00
1 0400.422.231.72.01 2025	APORTAZIOA: DEBAGOIENA EHUNDUZ	0,00	2.500,00	2.500,00
1 0400.226.332.10.08 2025	EKINTZAK:LIBURUTEGIA	7.500,00	2.700,00	10.200,00
1 0400.625.333.10.01 2025	ALTZARIAK:KULTUR ETXEA	0,00	1.500,00	1.500,00
1 0300.625.342.20.99 2025	BESTELAKO LANABESAK:KIROLDEGIA	0,00	3.600,00	3.600,00
1 0300.622.342.20.01 2025	KIROLDEGIA	0,00	5.500,00	5.500,00
<b>GUZTIRA</b>		53.029,30	62.800,00	115.829,30

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0200.870.000.00.01 2025	DIRUZAINTZAKO GERAKINA:GASTU OROKORRETAR	62.800,00
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>62.800,00</b>

#### KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

**Bigarrena.-** Erabaki horiek jendaurrean jartze hamabost egunez, nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez badago, erabakiak behin betiko bihurtuko dira, eta expediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.7.-



**8.- 2025eko LEHEN HIRUHILEKOAREN FINANTZA ETA EKONOMIA ARLOKO INFORMAZIOA (Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 64. artikulua).**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 64. artikuluan ezarritakoa betez, 2025eko lehen hiruhilekoari dagokion finantza- eta aurrekontu-informazioaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 9 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

**9.- IDAZKARITZA-KONTUHARTZAIETZAK 2025eko BIGARREN HIRUHILEKOAN JARRITAKO ERAGOZPENAK.**

Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzaietzak legezkotasun hainbat eragozpen jarri dizkienez Alkatetzak 2025eko apirilaren 1etik 2025eko ekainaren 30era arte hartutako erabakiei, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/204 Legegintzako Errege Dekretuko 218. artikuluan ezarritakoaren arabera, txostena aurkezten zaio Udalbatzarrari eragozpen horien aurka hartutako erabakien berri emateko.

Ondoren labur azaltzen dira Udalbatzarrak izandako erabakien eta eragozpenen berri:

- *4/2025 ERAGOZPENA: kutxa aurrerakina: 212,4 € “emandako zerbitzua” printzipioaren aurka ordaindu dira. Saritan emandako 240 eurotik ez dago 200 euro eman izanaren egiaztagiririk. Ez dago 329,6 euroren fakturarik.*
- *5/2025 ERAGOZPENA: buzoneoa- San Pedro jaietako programa eta indarkeria matxistari aurre egiteko protokoloa. Ez dago fakturarik (160,00 €).*
- *ERAGOZPENA 2025ean EMANDAKO DIRULAGUNTZEI BURUZKOA:*
  - a) *LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA: ez du nortasun juridikorik dirulaguntzen onuradun izateko.*
  - b) *ARIZMENDI KIROL ELKARTEA: lege aldetik irregularitasunak begirale zerbitzuan.*
  - c) *ESKO MOTOR: Ez da behar bezala justifikatu dirulaguntza guztia zertan erabili den.*
- *ERAGOZPENA brigadarako erositako ibilgailu elektrikoaren faktura ibilgailua jaso aurretik onartu delako. “emandako zerbitzua” printzipioa urratzen da.*

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 9 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

**10.- GALDE-ESKEAK.**

Josu Ezkundiak esan du herritar batzuen kexak jaso dituela Atxorrotx ingurua egoera oso txarrean dagoelako, eta galdeku du ea pentsatu den ingurua txukuntzea.



Alkateak erantzun dio laster belar-sastrakak kenduko direla, baina beste jardueraren bat egiteko proposamenen bat badago, ondo hartuko duela. Hala ere, Udalaren kexa publiko egin nahi du norbaitzuk ostegunetik ostiralerla bitartean utzitako hondakin kopuruagatik. Brigadak kendu behar izan zuen bertan lagata zegoen zabor guztia.

Josu Ezkurdiak esan du kexarekin bat egiten duela, baina horrek ez duela eragozten ingurua txukuntzea hain egoera txarrean badago.

Esandakoa aintzat hartu du Alkateak.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:11an amaitutzen ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiatzatzen dut.**



## **1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.**

Por encontrar conformes son aprobadas las actas de la sesión celebrada en fecha 26/06/2025 y 15/07/2025

## **2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.**

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el día 15 de julio de 2025.

De forma expresa se da cuenta de la resolución por la que se aprueba el expediente nº 10/2025 de modificación de créditos.

## **3.- ADJUDICACIÓN A ESNARGI KOOP. DE CONCESIÓN ADMINISTRATIVA PARA USO PRIVATIVO DE PARTE DEL TEJADO DE LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA.**

Considerando que este ayuntamiento es propietario del edificio donde está ubicado el centro escolar LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA, sito en el nº 25 de Gaztaadui, y que tiene la consideración de bien de dominio público municipal, incluido en el Inventario General de Bienes de esta entidad local como bien demanial.

Considerando que por acuerdo del Pleno de la Corporación de fecha 22/05/2025 el Ayuntamiento de Eskoriatza PARTICIPA como socio colaborador en la comunidad energética ESNARGI KOOP.S.

Resultando que la instalación de placas solares fotovoltaicas explotadas mediante autoconsumo colectivo resulta necesaria para la generación de energía por parte ESNARGI KOOP.S. y para ello necesita ubicar estas placas en un lugar del municipio.

Considerando que ESNARGI KOOP.S. está interesada en instalar dichas placas solares en la parte libre del tejado de LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA .

Considerando lo dispuesto en el artículo 6 de la Ley 24/2013, de 26 de diciembre, del Sector Eléctrico.

Considerando que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 9.5 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi , la autonomía municipal comprende, en todo caso, la ordenación de los intereses públicos en el ámbito propio del municipio, la organización y gestión de sus propios órganos de gobierno y administración, la organización de su propio territorio, la regulación y prestación de los servicios locales, la iniciativa económica, la política y gestión del personal a su servicio, el patrimonio y recaudación, y la administración y destino de los recursos de sus haciendas.

Considerando a lo dispuesto en el artículo 17.1.28 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.



